

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Zeanuriko Udala****Hiri lurren balio gehitzearen gaineko zerga araupetzen duen udal Ordenantza Fiskala.**

Udalbatzak, 2019ko urriaren 17an hasierako onarpena eman eutson Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zerga arautzen dauen Ordenantzaren aldaketari. Horretarako jarritako epean alegaziorik ez denez egon, onarpena behin betikoa bihurtzen da.

Araudi osoa publikatzen da.

Zeanurin, 2019ko abenduaren 19an. — Alkatea, Eider Ajuriagerra Arana

**HIRI LURREN BALIO GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA
ARAUPETZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISCALA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta zerga horri buruzko beren beregiko Foru Arauan ezarri denarekin bat, honako ordenantza honekin, hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko Zerga ezarri eta eskatuko du.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

Ordenantza honetan erregulatzen ez denari dagokionez, hiriko lursailen balio-hazkundearen gaineko zerga arautzen duen, ekainaren 30eko, 8/1989 Foru Arauak aurreikusten duena hartuko da aintzat.

II. ZERGA EGITATEA**3. artikulua**

1. Zergapeko egitea da zergaldian hiri-lurren balioak izandako gehikuntza, lurren jabetza lur horien gainekoa den eta jabaria mugatzen duen eskubide erreal baten truke eskualdatzen denean.

2. Xede horietarako, ondoko hauek izango dira hiri-lurrak:

a) Hiri-lurzorua eta antolamenduan urbanizagarri gisa adierazita dagoen lurzorua, sektoretan sartuta badaude, eta, orobat, antolamendua garatzen duten hirigintzako tresnek urbanizagarri gisa sailkatzen dutena.

Halaber, bide zoladuradunak edo espalozi zintarridunak dituzten lurrak hiri-lurreko ondasun higieztintzat joko dira, baldin eta, horiez gainera, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta herriko argiak badituzte, orobat, hiri-eraikuntzak dauden lurrak joko dira holakotzat.

Nekazaritzako legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak ere honelakotzat hartuko dira, beti ere, zatikapen horrek nekazaritzako erabilera hutsaltzen badu, eta, hala ere, haien landa-izaeran aldakuntzarik ez bada, zerga honetakoak ez diren beste ondorioetarako.

III. ORDENANTZATIK KANPO**4. artikulua**

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela-eta landa-lurtzat jotzen diren lurren balioaren gehikuntzagatik ez da honako zerga hau ordaintzen. Zerga hau ordainduko da, berriz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela-eta hiri-lurtzat jotzen diren lurren balioaren gehikuntzagatik; alde batera utzita haren erroldan edo katastroan horrela jasota dauden edo ez dauden.

2. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ondasunak edo eskubideak ekartzen dizkionenean ez dago Zerga ordaindu beharrik, ez eta hark ordainketa gisa adjudikazioak jasotzen dituenen eta ezkontideek ondasun komunak ordainketa gisa elkarri eskualdatzen dizkionenean ere.

Halaber, ezkontza deuseztatu edo senar-emazteak banandu edo dibortziatuz gero, horretaz emandako epaia betearazteko ezkontide batek besteari ondasun higiezinak eskualdatzen badizkio edo ezkontideek euren seme-alabei eskualdatzen badizkie, eragiketa ez dago Zergaren kargapean, dena delakoa ezkontzaren araubide ekonomikoa.

Gauza bera aplikatuko da, aurreko paragrafoetan aipatu balizkoen arabera, izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei.



IV. SALBUESPENAK

5. artikulua

1. Zerga honetatik aske daude ondoko egintzen ondorioz azaltzen diren balio-gehi-kuntzak:

a) Zortasun-eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

2. Halaber, balio-gehi-kuntzak zerga honetatik aske daude, zerga ordaindu behar dutenak ondoko pertsonak edo erakundeak direnean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta bertako toki-erakundeak, eta Autonomia Erkidegoko eta toki-erakunde horietako organismo autonomoak eta zuzenbide publikoko antzeko erakundeak.

b) Zerga aplikatu den udalerría eta bertako toki-erakunde guztiak, bai eta haietan ari diren organismo autonomoen antzeko zuzenbide publikoko erakunde guztiak ere.

c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturik dauden mutua-litateen eta montepioen kudeaketa-erakundeak.

e) Nazioarteko hitzarmenetan edo itunetan zerga honen salbuespena aintzatetsi zaien pertsonak edo erakundeak.

f) Administrazioaren emakida lehengoragarrien titularrak, haiei loturiko lurrei dago-kienez.

g) Gurutze Gorrikoak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.

h) Irabazizkoa ez diren erakundeak. Lurren eskualdatzeak edo horien gaineko ja-baría mugatzeko gozamenezko errege-eskubideen erraketa nahiz eskualdatzea denean, horiek irabazizkoa ez den erakunde batek kostu bidez egiten dituenean, zerga horretako salbuespena izateko, beharrezkoa izango da lur horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako salbuespena aplikatzeko baldintzak betetzea, ezin bestekoa izango da irabazizkoak ez diren erakundeen otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 16 artikuluko 1. atalean arauturiko aukeraren erabilera Udalarí ja-kinaraztea eta lehen aipatutako Foru Arauren bigarren Tituluan arauturiko zerga-araubide bereziari lotutako baldintzak nahiz kasuak betetzea.

3. Pertsona fisikoek kasu honetan egindako eskualdaketak salbuetsita daude zerga honetan: Hipoteka-zordunak edo zordun horren berme-emaileak ordainean ohiko etxebizitza ematen duenean etxebizitzaren gaineko hipotekarekin bermatutako zorrak kitatzeko, salbu eta kreditu-entitateekin edo modu profesionalean maileguak edo hipoteka-kredituak ematen dituen beste edozein entitateekin dituen zorrak badira.

Halaber salbuetsita egongo dira aurreko paragrafoko baldintzak betetzen dituzten etxebizitza-eskualdaketak, baldin eta eskualdatzea betearazpen hipotekario, judizial edo notarialen ondorioa bada.

Salbuespenerako eskubidea izateko, eskualdaketa egiten duen zordunak edo haren berme-emaileak edo haren familia-unitateko beste edozein kidek, etxebizitzaren besterentzea saihestu daitekeen unean, ez du izan behar hipoteka-zor osoari erantzuteko besteko ondasun edo eskubiderik. Betekizun hori berez betetzen dela ulertuko da. Nolanahi ere, ondoren egiaztatzen bada ez dela betekizuna betetzen, dagokion tributu-likidazioa egingo da.

Zenbaki honetan ezarritako ondorioetarako, ohiko etxebizitza izango da, hain zuzen ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 8. zenbakian hala definitutakoa.

Familia-unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 98. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Ondorio horietarako, parekatu egingo dira ezkontza, batetik, eta izatezko bikotea, bestetik.



V. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua

1. Ondokoak dira zerga honen subjektu pasiboak:
 - a) Irabazteko xedeekin lurra eskualdatzen direnena edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen direnean, lurra eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 33.artikuluari aipatzen duen erakundea, edota eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen duen pertsona.
 - b) Kostu bidez lurra eskualdatzen direnena edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen direnean, lurra eskualdatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 33.artikuluari aipatzen duen erakundea, edo eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen duen pertsona.
2. Aurreko idatz-zatiko b) letrak aipatzen dituen balizkoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko da lurra eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 33.artikuluari aipatzen duen erakundea, eta, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisiko bat bada, eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen duen pertsona.
3. Hipotekaren zordunak edo haren berme-emaileak bere ohiko etxebizitza ordainean ematen badiotzat kreditu-entitate bati edo modu profesionalean maileguak edo hipoteka-kredituak ematen dituen beste edozein entitate, edo betearazpen hipotekario, judicial edo notarial baten ondorioz etxebizitza horren eskualdatzea gertatzen bada arestian aipatutako entitate horietako baten alde, higiezin eskuratzen duen entitatea zergadunaren ordezkotzat hartuko da, baina ordezkotzat ezin izango dio zergadunari galdatu berak ordaindutako tributu-betebeharren zenbatekoa. Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioak sortzeko, foru arau honetako 2. artikuluko 4. zenbakian salbuespenerako eskubidea izateko ezartzen diren betekizun berberak bete behar dira.

VI. ZERGA OINARRIA

7. artikulua

1. Zerga honen oinarria hiri-lurren Balioaren benetako gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez hogeitun urtean metatutakoa.

Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Araua aldatzen duen ekainaren 20koa 3/2017 Foru Dekretu Arauemailea.

Zerga honen tributu-betebehar nagusia sortu dadin, beharrezkoa izango da lurren balio-gehikuntza bat gertatzea haien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzeagatik edo lur horien gaineko jabaria mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzeagatik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, lurren balio-gehikuntza zehazteko bi balio hauek alderatuko dira: batetik, lurren eskurapen-balioa edo, dagokion kasuan, jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide errealaren eraketa edo eskurapenari dagokiona, eta bestetik, lurren eskualdaketa-balioa edo, dagokion kasuan, jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide errealaren eraketa edo eskualdaketa dagokiona.

Tributu-administrazioak egin litzakeen balio-egiaztapenak gorabehera, kontuan hartu beharreko eskurapen- eta eskualdaketa-balioak hauek izango dira: jabetza-titulua edo jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide errealaren eraketa edo eskualdaketa egiaztatzen dituzten agirietan jasota daudenak.

Zenbaki honetan hizpide diren balioei ez zaie gehituko inolako gasturik, hobekuntzarik edo beste ezein kontzepturik, eta ez dira eguneratuko denbora igarotzeagatik.

Atal honetan lurren balio-gehikuntza zehazteko erreferentzia gisa aipatzen diren balioetan ez bada berariaz bereizten zer balio den egozgarria eraikuntzari eta zein lurzoruari, erreferentziatzen hartuko da zer proportzio duten lurzoruen katastro-balioak eta



eraikuntzaren katastro-balioak zergaren sortzapenaren unean indarrean dagoen katastro-balioarekiko.

Lurraren eta eraikuntzaren katastro-balioa ez badago banakatuta balio horren %60 aplikatu ahal izango da.

Data hauek hartuko dira kontuan aurreko atalean aipatzen diren balioak zehazteko: zein egunetan eskuratu den lurra edo, dagokion kasuan, zein egunetan eratu edo eskuratu den jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide erreala, eta zein egunetan eskualdatu den lur hori edo, dagokion kasuan, zein egunetan eratu edo eskualdatu den jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide erreala.

Lurrak ez badu balio-gehikuntzarik xedapen gehigarri honetan xedatutakoaren arabera, gerora egin daitezkeen eskualdaketen ondorioetarako kontuan hartuko dira etorkizuneko eskualdatzaileak lurra eskuratu eta eskualdatzean lurrari dagozkion balioak.

Nahiz eta lurrek ez izan balio-gehikuntzarik xedapen gehigarri honetan xedatutakoaren arabera, berdin-berdin bete behar dira foru-arau honen 7. artikuluan ezarritako bete-behar formalak eta, bereziki, beti aurkeztu behar dira eskurapen-zein eskualdaketa-balioak egiaztatzen dituzten agiriak.

Terrenoek balioa gehikuntza baldin badute artikulua honetan xedatutakoaren arabera, zerga onarria, zerga kuota eta hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren gaineko elementuak zehaztu beharko dira ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.

2. Aurreko lerrokadan aipatutako benetako gehikuntza zenbatekoa den zehazteko, lurrak sortzapen-egunean duen balioari hurrengoko aplikatuko zaio:

- Urteko portzentajearen denboraldia %1.
- Karga tasa %9.

3. Artikulu honetako bigarren zenbakian adierazitako portzentajea zenbatekoa den zehazteko, ondoko arauak erabiliko dira:

- *Lehena*: Zergaren menpeko eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza, aipatutako gehikuntza agerian gertatu den urte-kopurua barruan hartzen dituen aldirako artikulua honetako 2. zenbakian ezarritako urteko portzentajearen arabera zehaztuko da.
- *Bigarrena*: Sortzapen-unean lurrak duen balioaren gainean aplikatu beharreko portzentajea, kasu jakin bakoitzari aplikatu ahal zaion urteko portzentajea eta balio-gehikuntza agerian jarri izan deneko urte –kopuruaz biderkatutako emaitza izango da.
- *Hirugarrena*: Lehenengo aruari jarraiki eragiketa zehatzei aplikatu ahal zaien urteko portzentajea zehazteko, eta, orobat, bigarren aruari jarraiki urteko portzentaje hori zenbat urtez biderkatu behar den finkatzeko, balio-gehikuntza izan den denboraldiko urte osoak zenbatuko dira soilik; beraz, ez dira kontuan izango urte-zatikiak.

8. artikulua

Lur-eskualdaketen, lurren balioa zerga sortzen denean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoreetarako finkatutakoa izango da.

9. artikulua

1. Jabaria mugatzen duten ondasunen gaineko eduki-eskubide errealak eratzten eta eskualdatzen direnean, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondoreetarako finkatuta dauden arauak ezarriz, duten balioaren arteko diferentziari aplikatu zaizkio.

2. Eraikin edo lur batean solairu bat edo gehiago eraikitze eskubidea eratzten edo eskualdatzen denean, edo zorupean eraikitze eskubidea, azalaren gaineko ondasun-eskubiderik ez eduki arren, urteko portzentajeen taula, zehaztu den balio zehaztuaren atalean aplikatuko da, eta balioari eskualdaketa-eskrituran finkaturiko proportzotasun-modulua aplikaturik sortzen den balioari edo, horren ezean, hegalduran edo



zorupean eraikiko den azalera edo bolumenaren eta guztirako azalera edo bolumenaren arteko proportzioa aplikaturik sortzen denari.

3. Derrigorrezko desjabetzapenetan, urteko portzentajeen taula, balio justuaren zati bati aplikatuko zaio, hain zuzen, lurren balioari dagokion zatia.

VII. ZERGA KUOTA

10. artikulua

Zerga honen kuota zerga-oinarriari 7.2. artikuluan adierazi den karga-tasa aplikatuz sortuko da.

Gitxieneko kuota bat jartzen da, 100 eurotakoa.

VIII. ZERGAREN SORTZAPENA

11. artikulua

1. Zergaren sortzapena ondoko kasuetan gertatuko da:

- a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostu bidez zein dohainik, bizien artean edo heriotzaren ondorioz. Sortzapena eskualdaketa-egunean gertatuko da.
- b) Jabaria mugatzen duen eduki-eskubide errealean bat eratzen edo eskualdatzen denean. Sortzapena eraketa-edo eskualdaketa-egunean gertatuko da.

Arestian adierazi denaren ondoreetarako, transmisioaren datatzat ondokoa hartuko da:

- a) Bizien arteko egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen denekoa, eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo, lanbidearen zioz funtzionario publiko batek ematen dituenekoa.
- b) Heriotza-ziozko eskualdaketatik, sortzailearen heriotza-data.

2. Baldin eta, epai edo adminstrazio-ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurra edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deuseztatuz, hutsaldurik edo suntziazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zergaren itzulketarako eskubidea izango du, beti ere egintza edo kontratu hori irabazteko ondorek gabekoa bada eta zergaren itzulketa ebazpen irmoa ematen denetik bost urte igaro baino lehen eskatzen bada. Interesatuak elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko ondoreak daudela ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak betebeharrak ez betetzearen ondorioz adierazten bada, ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorek gabekoa izan.

3. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua ondorek gabe uzten badute, ez da bidezkoa izango ordaindutako zerga itzultzea, eta egintza zergapeko egintza berritza joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldiko abenikoa eta bai eskariari amore emate hutsa.

4. Egintzek edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengaria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da baldintza betetzen denean, behar den itzulketa aurreko ataleko arauari jarraituz eginez gero.

5. Alkar-poderoso edo testamentua egiteko ahalaren bidezko jaraunspenetan, Zergaren sortzapena ahala modu ezeztazinean erabiltzen denean edo hura iraungitzeko karietariko bat gertatzen denean gertatuko da.

Alkar-poderosoan edo testamentu egiteko ahalean norbaiti zerga honen pean dau den jaraunspeneko ondasunen gozamenaren edukitzeko eskubidea ematen bazaio, ahala erabiltzen ez den artean gozamenaren likidazio bi egingo dira: bata, behin-behinekoa, oinordetza hastean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko aruen pean; eta, bestea, behin betikoa, alkar-poderosoa edo testamentu egiteko ahala erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauen pean, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Behin-behineko likidazioagatik ordainduko dena kontu-



rako sarreratzat konputatuko da eta diferentzia gozamen dunari bihurtuko zaio, bidezkoa bada. Aldi baterako gozamenaren ziozko behin betiko likidazioa eta alkar-poderosoa edo testamentu egiteko ahala erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse diren likidazioa aldi berean egingo dira.

IX. ZERGA KUDEATZEA

12. artikulua

Subjektu pasiboek aitorpena aurkeztu behar diote Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera eginga, eta eredu horrek likidazioa egiteko behar diren zerga-elementuak bilduko ditu. Aitorpen horretan zergari buruzko datuak eta beharrezkoak eta nahitaezkoak direnak ez ezik, kuota adieraziko da.

13. artikulua

Honako hauek dira aitorpena aurkezteko epeak-zergaren sortzapena hasten denetik hasita:

- a) Inter vivos egintzei buruzko aitorpenak, hogeita hamar asteguneko epean.
- b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epea urtebetekoa izango da.

14. artikulua

1. Aitorpenarekin batera, zergapeko egintza edo kontratua agerrarazteko egindako agiria aurkeztuko da.

2. Eskatzen diren salbuespenak edo hobariak, halaber, agiriz ziurtatu beharko dira.

15. artikulua

Udal Administrazioak eskubidea du pertsona interesatuei agindeia egiteko eta interesatuak eskatuz gero luzagarria izango den hogeita hamar eguneko epearen barruan, zergaren likidazioari ekiteko bidezkotzat jo ditzakeen dokumentu guztiak eskatzeko; epe horren barruan egindako agindeiari erantzuten ez dietenek, dagozkien arau-hauste eta tributu-zehapenak izango dituzte, baldin eta adierazi diren agiriak aitorpena egiaztatze-ko eta likidazioa ezartzeko beharrezkoak badira. Adierazi diren agiri horiek interesatuak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatze bitarteko hutsak balira, agindeiari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontuan hartu gabe likidazioa egitea ekarriko du.

16. artikulua

Hamabigarren artikuluan xehatu dena gorabehera, ondoren aipatuko direnak ere zerga-egitatea jakinarazi behar diote Udalari, subjektu pasiboei ezarritako epe berean:

- a) Ordenantza Fiskal honen 6.artikuluko a) letran adierazitako balizkoak bizien arteko negozio juridikoen ondorioz gertatzen direnean, dohaintzagilea edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duena.
- b) Arestian aipatu den 6.artikulu horretako b) letrako balizkoak gertatzen direnean, eskuratzaillea edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaiona.

17. artikulua

Halaber, notarioek, egutegiko hiruhileko guztien lehenengo hamabostaldietan, egutegiko aurreko hiruhilekoan egiletsiak dituzten agiri guztien zerrenda igorri behar diote Udalari. Zerrendan, udalmugartean zerga honen zergapeko egitatea bete dela agerian uzten duten egitateak, egintzak edo negozio juridikoak jaso behar dira, hilburuko egintzak izan ezik. Halaber, sinadurak aintzatesteko edo legeztatzeko aurkeztu dizkieten egitate, egintza edo negozio juridikoei buruzko agiri pribatuen zerrenda igorri behar dute epe beraren barruan. Artikulu honetan ezarritakoa gorabehera, beti ere Bizkaiko Zerga Arau Orokorrean lankidetzarako ezarri den eginbehar orokorra bete behar da.

**18. artikulua**

1. Udal Administrazioak aitortu ez diren zerga-oinarrien egintzaren jakinaren gainean dagoenean, 13. artikuluan aipatzen diren epeen barruan, interesatuei agindeia egingo die aipatutako aitortpena egin dezaten, tributu- urratzeak eta, horrela balitz, dagozkien zehapenak gorabehera.

2. Udal Administrazioak aurreikusitako agindeiak bideratuta, eta interesatuek dagoen aitortpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea tramitatuko da, berak dituen datuekin, dagokion likidazioa eginez eta, hala balegokio, dagozkion sartzeepeak eta errekurtsoen adierazpena azalduz, tributu-urratzeak eta, hala balitz, dagozkien zehapenak gorabehera.

XI. XEDAPEN GEHIGARRIA**Lehenko Xedapen Gehigarria**

Aurreko 9.1. artikuluan xehatu denaren eraginetarako, eta Ondare Eskualdaketa eta Ekintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zerga onetsi zuen Foru Araua indarrean dagoen bitartean, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

- 1.a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioaren proportzioan egingo da, urtebeteko epealdiko 100eko 2a, baina 100eko 70a gaindutu gabe.
- b) Biziarteko gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren %70ekoa dela iritziko da gozamedunak 20 urte baino gutxiago dituzenean, eta hori gutxituz joango da, hortik gorako urte bakoitzeko 100eko 1eko proportzioan, balio osoaren 100eko 10eko mugarekin.
- c) Pertsona juridiko baten alde egindako gozamena, 30 urtetik gorako eperako edo denbora mugatu gabe egongo balitz, eragin fiskaletarako, ebazpen-baldintzapeko jabetza osoko transmisioatzat joko da.
2. Jabetza soileko eskubidearen balioa, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren desberdintasunean konputatuko da. Aldi berean aldi baterako diren biziarteko gozamenetan jabetza soila neurtzeko, aurreko lehen zenbakiko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuko da.
3. Erabilera-eta biziarteko-errealen balioa ezartzeko, aldi baterako gozamen edo biziartekoen gozamenaren kasuen arabera, balorazioari dagozkion arauak, horiek ezarriak izan zireneko ondasunen balioaren 100eko 75ari aplikatuko zaizkio.

Bigarren Xedapen Gehigarria*Izatezko bikoteak*

Ordenantza honen ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen direnean ulertuko da bikoteok Izatezko bikoteak arautzen dituen 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturakoak direla.

XII. XEDAPEN IRAGANKORRA**Xedapen Iragankor Bakarra**

1. Ekainaren 20ko, 3/2017 Foru Dekretu arauemaile hau indarrean jarri baino lehenagoko sortzapena duten zergen likidazio irmoak.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak Foru-Dekretu arauemaile hau indarrean jarri baino lehenagoko sortzapenei badagozkie, eta data hori baino lehen geratu badira irmo, bada, likidazio horiei ez zaie aplikagarria izango foru-dekretu arauemaile honek artikulatu bakarrean xedatutakoa. Horren ordean, erregela hauek aplikatuko dira:

- 1) Ez da zilegi izango zuzenketak, bihurtaketak edo itzulketak egitea foru-dekretu arauemaile honen artikulatu bakarrean jasotakoan oinarrituta.



2) Likidazio horiekin lotuta hasitako zerga-bilketako prozedurek aurrera egingo dute erabat amaitu arte, eta geroratu edo zatikatutako zerga-zorrak beren osoan exijituko dira.

2. Foru Dekretu arauemaile hau indarrean jarri ondoren emandako hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak, baina data hori baino lehenagoko sortzapena dutenak.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak Foru Dekretu arauemaile hau indarrean jarri ondoren eman badira baina haien sortzapena data hori baino lehenagokoa bada, likidazio horiei aplikatuko zaie foru-dekretu arauemaile honen artikulua bakarrezko xedatutakoa, baldin eta data hori lehen sortzapen horiengatik ez bada egin irmo bihurtu den likidaziorik.

3. Administrazio-bidean errekurritu baina ebatzi gabe dauden likidazioak.

Foru Dekretu arauemaile hau indarrean jartzen den egunean ebatzi gabe dauden administrazio-bideko errekurtsioak likidazioaren ardura duen administrazio-organoari helaraziko zaizkio, beharrezkoa bada beste likidazio bat egin dezan, foru-dekretu arauemaile honen artikulua bakarrezko xedatutakoa kontuan hartuta.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean.